

HERNANIKO NEGOZIOAK SUSTATZEKO EROSKETA BONUAK

2020ko martxoaren 11n Osasunaren Munduko Erakundeak Covid-19ak sortutako egoera osasun publikoaren egoera izatetik nazio arteko pandemia egoera izatera igo zuen.

Gaixotasunaren progresioa eten nahirik, Ministroen Kontseiluak, 2020ko martxoaren 14ko bileran, 463/2020 Errege Dekretua onartu zuen, Covid-19ak sortutako osasun krisiaren egoera kudeatzeko alarma egoera deklaratzeari buruzkoa, eta horren 7. artikuluan pertsonen zirkulazio librerako mugak daude ezarrita. Ondoren, Diputatuen Kongresuak baimena eman dio Gobernuari lehendik dekretatutako alarma egoera luzatzeko.

Era berean, Gobernua zenbait errege dekretu lege onartzen joan da, adibidez 7/2020 Errege Dekretu-legea, martxoaren 12koa, 8/2020 Errege Dekretu-legea, martxoaren 17koa, eta 11/2020 Errege Dekretu-legea, martxoaren 31koa, Covid-19aren inpaktu sozial eta ekonomikoari aurre egiteko aparteko presazko neurriak hartzaeri buruzkoak.

Osasun krisiaren ondorioz alarma egoerak nahitaez ezarritako mugek eragin negatiboak izan dituzte alor ekonomikoan. Testuinguru horretan, alor ekonomikoan erabateko lehentasuna da ekoizpen eta gizarte egitura babestea eta horiei eustea inpaktua murrizteko, eta lortzea, osasun alarma bukatzen denean, lehenbailehen jarduera berreskuratzea.

Horri dagokionez, Hernaniko negoziok, alarma egoeraren inpaktua gogorki jasan dute eta bere jarduerari berrekin ahal dionean, zailtasunak izango ditu bizirauteko; horregatik, beharrezkotzat jotzen da laguntza ematea negoziok suspertzen saiatzeko eta erosketak egitean herritarren ohiturak aldatzea bultzatzeko.

Horretarako, BERRIAK Hernaniko merkataritza eta ostalarien elkartearekin batera, Udalak Hernanin erosketak bonuen programa babestea pentsatu du, herritarrei kontsumo ondasunak eskuratzen laguntzeko, hiri ekonomia indartzeko bitarteko gisa, eta horrekin batera, hiri inguruneak dinamizatzeko.

Hernaniko erosketak bonuen programaren helburuak hauek dira:

Udalerriko merkataritzan erosketak sustatzea, ondasunak eta zerbitzuak eskuratzeko orduan herritarren ohitura aldaketak larriki eragiten dion sektore baten garapen ekonomikoa bultzatzeko.

Sektorea biziberritzea, herritarrak herrian erosketak egitera animatuz eta guztion artean Hernaniko kaleak bizirik mantendu ahal izateko.

Udalerriko hiri ekonomia dinamizatzea, beste neurri batzuen osagarri eta indargarri gisa jardunez.

Horrelako laguntzek sor dezaketen enpresa sendotzearen dinamika ez da bateraezintzat jotzen lehia indarren joko askearekin, lehiarako gutxieneko murrizketarekin eta zeharkako etekina merkataritza banaketako enpresa gutxi batzuetan kontzentratzea saihesteko neurriekin egiten baita.

Horregatik guztiagatik, eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrarekin, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuarekin eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearekin bat etorritik, honako hau

EBAZTEN DUT

Hiri ingurunea dinamizatu eta hiri ekonomia bultzatzeko herritarrek kontsumo ondasunak eskuratzeko bonuak erregulatuko dituzten arau bereziak onartzea. Hau guztia martxan jartzeko BERRIAK Hernaniko merkataria eta ostalaritza elkarteari premiazko dirulaguntza zuzena emango zaio, ondorengoak kontuan izanda:

1. 1. artikulua. Helburua.

Deialdi honen helburua Hernaniko hiri ingurunean pertsonei bideratutako produktu eta zerbitzuak eskeintzen dituzten negozioak indartzeko erosketa bonuen programaren oinarriak onartzea da.

2. 2. artikulua. Kreditu erabilgarria

Deialdi honetarako 100.000 euro erabiliko dira, 1 02.481.02.431.00 2020 (6334) KONTSUMO-BONOAK-COVID-19 aurrekontu partidaren kargura.

3. 3. artikulua. Diruz lagunduko diren jarduerak eta aplikazio eremua.

1. Hala eskatzen duten Hernaniko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu establezimenduetan norberarentzat eta familiarentzat ondasunak erosteko herritarren artean banatuko diren bonuak.

2. Erosketa bonu horietako bakoitzak 50 euroko balioa izango du (10 euroko bonoetan zatigarria), eta onuradun den herritar bakoitzak 35 euroko gastua egin beharko du; beraz, 50 euroko balioa duten produktuak eskuratu dituzte, eta horietatik 35 euro bakarrik ordaindu beharko dituzte. Erosketa bonu bakoitzaren 15 euroko aldea Hernaniko Udalak jarriko du, BERRIAK merkataria eta ostalari elkartearen bitartez.

3. Diruz lagundu daitekeen jardueraren esparruan sartzen dira milioi batetik beherako mikroenpresa eta norberaren konturako langileak, baldin eta, pertsonei zuzendutako salmenta edo zerbitzua eskeintzen badute.

4. artikulua. Laguntzen izaera.

Programa honen esparruan ematen diren laguntzak itzuli beharrik gabeko dirulaguntzat hartuko dira.

5. artikulua. Laguntzak kudeatzeko organoa.

Turismo eta Merkataritza Sailari dagokio deialdi honetan aurreikusitako laguntzak kudeatzeko lanak egitea.

6. artikulua. Onuradunak

Hernanin bizi diren pertsona fisikoak bonu hauen onuradunak izango dira, betiere ezarritako baldintza eta bideetatik eskuratu badituzte.

16 urtetik gorako onuradun bakoitzak Bono bat eskuratu ahal izango du eta horretarako bere Nortasun Agiria aurkeztu beharko du. 16 urtetik beherakoen kasuan, bere guraso edo tutoreak egingo du erosketa, eta Nortasun Agirik ez balu, Familia Liburua aurkeztu beharko du.

7. artikulua. Erakunde laguntzailea

1. BERRIAK Hernaniko merkataria eta ostalari elkartearekin elkarlanean banatuko dira erosketa bonuen trukearen bidezko dirulaguntzen funtsak, eta dirulaguntzaren baldintzak eta eskakizunak betetzen direla egiaztatu ere bai.
2. Lankidetzaren hitzarmenaren bidez gauzatu da elkarlana, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2013 Lege Orokorra izango baititu ardatz, eta lege horietan eta dirulaguntzak kudeatzeko erakunde laguntzaileentzako garapen xedapeneta aurreikusitako araubide juridikoa aplikatuko zaio erakundeari.
3. Lankidetzaren hitzarmena sinatu eta gero, elkarteak adierazitako kontuan sartuko du Udalak dirua.

8. artikulua. Parte hartzeko baldintzak

1. Hernaniko erosketa bonuen programan parte hartzeko aukera izango dute bonuak hartu eta ordainketa modu gisa onartzen dituzten Hernaniko establezimenduek. Hauek persona fisiko zein juridikoak izan daitezke, baina ondorengo baldintzak bete beharko dituzte:
 - a- Jardueraren helburu nagusia kontsumitzaileari kontsumo produktuak eta zerbitzuak zuzenean saltzea izatea.
 - b- Zerga betebeharretan, bai Gizarte Segurantzarekin eta Ogasunarekin eguneratuak egotea eta, hala badagokio, dirulaguntzak itzultzeko betebeharretan.
 - c- Hernaniko Udalarekin zorrik ez izatea.
2. Alde horretatik, beste betebeharrak batzuk kontuan izan beharko balira, Udalak edozein unetan eskatu ahal izango du gutxieneko eskakizunak betetzen direla egiaztatzeko edozein agiri.

Horiek betetzen ez dituzten entitateek aurkeztutako eskaerak ez dira kontuan hartuko eta ez dira onartuko.

Ezingo dute parte hartu lotería, apostu eta erregaien salmentako enpresek.

9. artikulua. Programan parte hartzeko epea eta prozedura.

Hernaniko Erosketa bonuen programan parte hartu nahi duten saltokiek eskaera, onarriak www.hernani.eus orrian argitaratu eta hurrengo egunetik aurkeztu dezakete.

Interesa izan dezaketen pertsonak parte hartzeko eskaera orria Hernaniko Udaleko webgunean egongo da: www.Hernani.eus.

Eskaerak legezko ordezkariak edo eskatzaileak aurkeztu beharko ditu, Udalak egindako eskabide ofizialaren ereduaren bidez. Eskabideak aurkeztu ahal izango dira: bai emailaz merkataritza@hernani.eus helbidean, zein bide telematikoz Hernaniko Udalaren erregistro elektronikoaren bidez.

Eraberean, Merkataritza eta Turismo Sailan aurkeztu ahal izango dira era presentzialean, Biteri Kulturetxean.

BERRIAK Elkarteko negozioen kasuan, Hernaniko Udalak elkartarekin duen lankidetzaz hitzarmenaren baitan, zuzenean onartuko dira elkartek aurkeztu duen parte hartzaileen zerrenda, parte hartzaileen datuak jasotzen dituena.

Bonoen ekaineko kanpainan parte hartu duten establezimenduak zuzenean hartu dezakete parte, ezezkoa ematen ez den bitartean.

Eskaera orria aurkeztean, parte hartzen duten establezimenduei beharrezko dokumentazioa eta jarraibideak emango zaizkie, Biteri Kulturetxean jaso ahal izango direnak.

10. Parte hartuko duten saltokien betebeharrak.

Hernanin erosteko bonuen programan parte hartzeko eskaera orria aurkeztu duten saltokien betebeharrak hauek izango dira:

- a) Atxikitako dendak konpromisoa hartzen du publizitateko materialak saltokian jaso eta ikusteko moduan jartzeko.
- b) Atxikitako dendak eskuratzaileren nortasuna kontrolatzeko konpromisoa hartzen du.
- c) Bonoaren zenbatekoar kobratzeko eskatzeko, dendak salmentaren frogagiriak; hau da, behar bezala betetako erosketa bonua eta faktura edo erosketa tiketa BERRIAK Elkartearen bulegoan utzi beharko ditu.
- d) Erosketa bonuen erabiltzaileei ez zaie itzuliko erosketaren eta erosketa bonuaren balioaren arteko diferentzia.
- e) Erosketa bonuen bidez erositako ondasunen itzulketa politikari dagokionez, saltokii bakoitzak zehaztuko du noiz eta nola egin itzulketa. Halere, erosketa bonuarekin eskuratutako produktua itzultzen bada, ez da eskudirutan itzuliko. Aitzitik, saltoki bereko beste produktu batekin ordezkatu da, edo erosleak ordaindutako zenbatekoa eskudirutan ordainduko zaio; kasu horretan, erosketa bonuen deuseztapenaren berri eman beharko da, eta jasotako zenbatekoa itzuli beharko du saltokiak.
- f) Parte hartutako saltokiekin harremanetan jarri ahal izango da, funtzionamendua egiaztatzeko eta oro har prozesuaren eta kanpainaren inguruan zer iritzi duten egiaztatzeko.

11. artikulua. Erakunde onuradunaren betebeharrak.

1. BERRIAK merkataria eta ostalari elkartek, dirulaguntza kudeatzen laguntzen duen erakundea den aldetik, jarduera hauek egingo ditu:
 - a. Programa orokorrean hedatzea, bere webgunean, sare sozialetan eta komunikabideetan.
 - b. Interesa duten negozioei informazioa ematea.
 - c. Hobaridun salerosketa bakoitzaren eskakizunak bete direla egiaztatzen kolaboratzea; salerosketa hori bonua(k) eta faktura edo erosketa tiketa aurkeztuta egiaztatuko da.

d. Erosketa bonuen banaketa eta kudeaketa. Hernaniko Udalak bonuen banaketarako salmenta puntu gehigarriak jarri ahal izango ditu BERRIAK elkartearen salmenta puntua osatzeko.

2. Jarduketa horiek gauzatzean, negozioaren eta pertsonen datuei dagokienez konfidentziasun eta isiltasun betebeharrak bete beharko ditu. Egiaztapen lanak egin ondoren, dokumentazio guztia Turismo eta Merkataritza Sailera bidali beharko da.
3. Erabat debekatua dago negozioetan diskriminazio edo tratu desberdinatusunak egotea, batez ere elkarteko kide izatearekin edo ez izatearekin.

12. artikulua. Dirulaguntzen indarraldia eta kanpainaren egutegia

1. Hernanin kontsumitzeko erosketa bonuak, ordainketa modu gisa, Hernaniko udalerrian bakarrik erabiliko dira.
2. Erosketa bonuak irailaren 7a eta urriaren 31 bitartean erabili ahal izango dituzte soilik programari atxikitako establezimenduetan. Epe hori igarota, ez da erosketa bonurik onartuko.
3. Programari atxikitako establezimenduek astero egindako eragiketei dagozkien erosketa bonuen ordainketa jasoko dute. Horretarako, BERRIAK Elkartearen Bulegoan aurkeztu beharko dituzte fakturarekin edo erosketa tiketarekin batera.
4. Kasu guztietan, data horiek aldatu ahal izango dira, antolaketa inguruabarrek edo bestelako arrazoiek hala gomendatzen badute, eta horren berri emango da.

13. artikulua. Programan parte hartu duten negozioetan jaso dituzten erosketa bonuak trukatzeko prozedura eta ordainketa.

Trukea egiteko, jasotako erosketa bonuak eta erosketa tiketa edo faktura eraman beharko dira BERRIAK elkartearen bulegora. Trukea astean behin egingo da. Dokumentazioa egiaztatu ondoren ordainduko da, jaso eta hamabost eguneko epean eta banku transferentzia bidez. Ordainketak astearteetan gauzatuko dira.

14. artikulua. Ikuskatzea eta ez-betetzeak.

Hernaniko Udalak, programaren arduradun den heinean, egokitzen jotzen dituen egiaztapen, ikuskapen eta gainerako kontrol guztiak egin ahal izango ditu ziurtatzeko baliabide publikoak ondo erabiliko direla eta laguntza programa hau modu egokian garatu eta aplikatuko dela.

Saltoki atxikiak ez-betetzereen bat eginez gero, Hernaniko Udalak erosketa bonuen programara duten atxikipena bertan behera utzi dezake, eta ez-betetzereen ondoriozko neurriak aplikatu.

Atxikitako establezimenduak behartuta daude Hernaniko Udalak laguntzen zertarako fiskalizatzeko eskatzen dien informazio guztia ematera.

15. artikulua. Dirulaguntza emateko prozedura.

Ebazpen hauek zuzenean ematen dira, azaroaren 17ko Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorrean 22.2c) artikuluan aurreikusitakoaren babesean, aipatutako Legearen 28. artikulua 2. eta 3. ataletan ezarritakoari eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren - Legearen Araudia onartzen den horren- 67. artikuluan aurreikusitakoari dagokionez, horrela

zuritzen duten interes ekonomiko, sozial eta humanitarioko aparteko arrazoiak baitaude.

Ebazpen honetan araututako dirulaguntzek izaera berezia dute, prozeduraren zioa diren gertaerek salbuespenezko izaera baitute. Dirulaguntzaren xede zehatza dela eta, beharrezkoa da zuzenean ematealehiarik gabe.

Zehazki, dirulaguntzak zuzenean ematea zuritzen duten interes publikoko arrazoiak zera dira, tokiko komertzioa sustatzeko beharra betetzea, haien jarduera etenda gertatu baita, bat etorritz martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuan Covid-19ak sortutako osasun krisiaren egoera kudeatzeko alarma egoera deklaratzeari buruzkoan-aurreikusitakoarekin.

AZKEN XEDAPENAK

Administrazio bidea amaitzen duen deialdi honen aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa ezarri ahal izango diote interesdunek, hilabeteko epean, argitaratu eta biharamunetik hasita; bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsoa ezar daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietako Salan, bi hilabeteko epean, agindua EHAAan argitaratu eta biharamunetik hasita.